

Nor garen eta zer izan nahi dugun...



**NEKANE
TXAPARTEGI NIEVE**
IHESLARIA ETA
KAZETARIA

Eguneroko ariketa inkontzientea gai bilakatu da Euskal Herriko egonaldian. Ez daramazkit egun asko eta jada arnasa estutu zait behin baino gehiagotan... Begirale moduan nabil ene herria bilatu eta berrezagutu nahian. Lehen ez ote nituen gauzak ikusi nahi edo atzerapauso galanta egin ote dugun, nor garen, zer izan nahian...

Herri zapalduak badituzte joera amankomunak: herri zapaldu gisa beraiek ezin direla zapaltzaile izan sinisteko jarrera, batetik; eta bestalde nahia, beraiek nazioartean badirela esateko, bertako pertsonaia edo lekuak ezagutaraziz. Kurduak preso duten Ocalanen irudia eta Jineologia (emakumeen zientzia) zabalduz dabilzan bitartean, euskal instituzioei Elkanoren jai eguna izendatzea otu zaie.

Munduan zehar dekolonizazioaren eztabaida pil-pilean dagoen unean, estatuak plazetatik erausten ari direnean, Euskal Herriko jauntxoek nahiago izan dute, borroka eta erresistentzia moduak, lekuak edo pertsonak gogoratu baino, kolonialismoa, ustiapena eta esklabotza erabili duten gizonetarekin eusko labela saldu. Horrela munduan ezagutuko gaituztelakoan, Gaztelugatxeren moduan, horrek ekarri dituen ondorioekin... Zoritxarrez, joera hori instituzioetatik haratago doala konstatatu naiz uda beroko egun batean.

Donostiara joan eta gida-turistikoko baten hitzek estutu didate arnasa. Es-

painiarrez, beste lelokeri pilen artean hor bota die entzuleei: "Hemen erromatarrak etorri aurretik ba omen zebilen *algun Argiñano* euskara hitz egiten". Alabak ikusi du nire asmoa, "Ama ez esan ezer" eskatu dit. Berari bota dizkiot galderak: hau al da nor garen kontatzeko era? Espainiarrek edo turistek entzun nahi dutenera kontakizuna moldatzea? Erresistentzia txiste bihurtzea?

Hondarribira jarraitu dugu bidaia. Alaba eta biok euskaraz hitz egiten entzuten ditugun pertsonak zenbatzea erabaki dugu. Gaurkoan hamar, gehienek txakur eta umeekin, gero beraien artean espainiarrez... Alardean zer ospatzen den kontatu diot eta fundamentalisten emakumeekin jarri. Harrituta entzun ditu ene hitzak. Turismo burgesa eta eskuindarra ene begietan eta belarrietan. Hondartza ertzean lagunen zain gaude eserita. Eskatu gabe egoera surrealista batean sartu gaituzte. Madrileko kolegio aleman batera joaten den bost urteko mutiko batek, bere adineko beste mutiko frantsesari erdiko hatza erakutsi eta burla egin dio biluzik zegoelako.

Euskararen txantxangorriak estutu dit arnasa. Nola da posible Euskal Herriko hizkuntza hitz egiten delako pegatinak ikustea? Bizi garen lekuan beste zer hizkuntza dakizkiten adierazten dute letreroek...

Nor garen eta zer izan nahi dugun (ez) dago salgai!!! ●

Oihartzunaren hitza



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Hitza, pentsamenduaren oihartzuna ezpainetan". Hala dio Ekaitz Goikoetxeak *Balio erantzia* aforismo liburu gozagarrian. Gu maiz ohartu ez arren, gogoaren oihartzuna ailegatzen bide da ahoaren ertzetara: barrenetik kanpora. Alfabetikoki ordenatutako aforismo bilduma berean, nolabaiteko hots errepiken jokoa irudikatuz, beste hau ageri da hemezortzi orrialde geroago: "Oihartzunak beti betetzen du hitza".

Baiki, salgaien oihartzunak ozen aditzen dira hor-hemenka, gero eta merkantilizatuago dagoen mundu honetan.

Hezkuntzan, kulturalan edota artean ere normalizatua dago "saldu" aditzaren erabilera: "Nola salduko dugu proiektu hau?"; "Ez du diskurtsoa ongi saldu"; "Ez dakigu geure burua saltzen"; eta abar. Urteak dira halako adibideak aditzen ditudala lan giroan zein lagunartean, erakunde ofizialagoetan nahiz mugimendu alternatiboagoetan.

Eta makina bat aldiz adituagatik ere, oraindik aldiro sumatzen ditut salerosketaren dandak belarrietan. Mundua elkarrekin irudikatze eta, nahi izate-ra, aldatzeko arloetan ere, oihartzunak betetzen bide du hitza. Eta ekinga. ●